



**BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA
GRADUADO EN EDUCACIÓN SECUNDARIA**

PROBA LIBREA/ PRUEBA LIBRE

KOMUNIKAZIO-EREMUA / ÁMBITO DE COMUNICACIÓN

**EUSKARA ETA LITERATURA
LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA**

2018ko azaroa / Noviembre 2018

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:



OHARRA*/NOTA*

Azterketa honek hiru atal ditu:

- 1. Lengua Castellana y Literatura**
- 2. Euskara eta Literatura**
- 3. Idazmena (euskaraz eta gaztelaniaz)**

Ordena horretan egin azterketa, probari zentzua eta atalen artek lotua emateko.

.....

***Esta prueba consta de tres partes, que van ordenadas:**

- 1. Lengua Castellana Literatuta**
- 2. Euskara eta Literatura**
- 3. Prueba escrita (en euskara y lengua castellana)**

Es necesario seguir ese orden para dar sentido y cohesión a la prueba en general.

1º parte

LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

APELLIDOS Y NOMBRE: _____

FIRMA:

INSTRUCCIONES

1. Leed, con atención, el texto y las preguntas.
2. Intentad contestar todas las preguntas.
3. En el apartado de Expresión Escrita se deben escribir dos textos, uno en castellano y otro en euskera. Es necesario decidir cuál se escribirá en euskera y cuál en castellano.
4. Antes de terminar el tiempo fijado para la prueba, revisad de nuevo lo escrito y corregir los posibles errores.
5. Tened cuidado con la ortografía y la presentación.
6. Al lado de cada pregunta se expresa la puntuación correspondiente.



El 16 de octubre se celebra el Día Mundial de la Alimentación. Bajo el lema "[Nuestras Acciones son nuestro futuro](#)", se pretende concienciar sobre la importancia de desperdiciar menos y alimentarse mejor. Desde la OCU nos unimos con nuestras acciones a

esta celebración promovida por la FAO.

Lo que comemos hoy tiene consecuencias ya no solo en nuestra salud sino también en la de nuestro planeta y de nuestra economía. Una alimentación saludable ayuda a prevenir la aparición de enfermedades. Por eso es importante dedicarle tiempo a lo que comemos: a elaborar los menús, hacer la compra en el mercado, preparar las comidas con mimo sin necesidad de ser un gran chef y, en definitiva, volver a la auténtica [dieta mediterránea](#).

Una dieta más saludable y sostenible desde la infancia

Cuando hablamos de futuro hablamos de los más peques de la casa por lo que es importante insistir en [afianzar unos buenos hábitos de vida](#) (dietéticos y de actividad física) desde muy pequeños. Pero las cifras de [sobrepeso y obesidad infantil](#) en nuestro país aún son preocupantes. Por lo tanto, aún quedan cosas por hacer en este aspecto. No solo los padres, sino también la industria reformulando sus productos de forma sincera y no con [propósitos comerciales](#), y sobre todo la administración que debería poner coto, entre otras cosas, a la [publicidad no saludable](#).

Pero de nada sirve llevar hábitos de vida saludables si no son sostenibles. Respetar la temporalidad de las [frutas y verduras](#), o incluso del [pescado azul](#) ayuda a diversificar nuestra dieta pero también a proteger nuestro planeta.

No tires la comida

La lucha contra el [desperdicio alimentario](#) es otro campo de batalla donde el consumidor puede hacer mucho para ganarla. Para ello es importante saber [cocinar con sobras](#) y comprender la diferencia entre las fechas de caducidad o de consumo preferente de los productos procesados:

[Imprimir](#) [Enviar por email](#)

Fuente: <https://www.ocu.org/alimentacion/alimentos/noticias/dia-mundial-de-la-alimentacion-2018>

FAO: Organización de las Naciones Unidas para la Alimentación y la Agricultura, o más conocida como **FAO** (por sus siglas en inglés: *Food and Agriculture Organization*),

OCU: Organización de Consumidores y Usuarios.



1. Responda a las siguientes cuestiones sobre el texto: (1 punto)

A. Señale el objetivo del texto más adecuado:

- a. Describir una dieta saludable.
- b. Narrar las acciones contra el desperdicio alimentario.
- c. Informar sobre el día 16 de octubre.
- d. Exponer y argumentar sobre la importancia de una buena alimentación sostenible.

B. ¿Dónde puede estar publicado este texto? Dé dos razones que apoyen su respuesta:

2. Indique dos situaciones en las que usted haga propio o aplique el lema del Día Mundial de la Alimentación “Nuestras acciones son nuestro futuro” y explíquelas brevemente. (0,5 puntos)

3. ¿Cuál de estas afirmaciones es correcta según el texto?: (0.5 puntos)

- A. Los hábitos de vida saludables protegen nuestro planeta.
- B. La OCU no se vincula con el Día Mundial de la Alimentación.
- C. La obesidad infantil es consecuencia de los buenos hábitos de vida.
- D. La dieta mediterránea es beneficiosa para nuestra salud, para nuestra economía y para nuestro planeta.



4. Explique el sentido de esta expresión del texto: (0.5 puntos)

“Respetar la temporalidad de las frutas y verduras”

5. En el texto aparecen dos acrónimos. ¿Podría indicar cuáles son y el significado de ambos? (0.5 puntos)

ACRÓNIMOS	SIGNIFICADO

6. En las oraciones siguientes hay algún error, subrayelo y escriba correctamente las frases: (1 punto)

a) La primera reunion de la OMS tuvo lugar en 1948.

b) ¿Porqué tenemos que alimentarnos bien?

c) Cómo éramos muchos, tuvimos que repartir la comida.

-

d) Los alimentos básicos son importado desde diferentes partes del mundo.



7. Como ha visto en el texto, el día 16 de octubre se celebra el Día de la Alimentación. En octubre, también, hay otras fechas que recuerdan la muerte de algunos escritores o escritoras relevantes de la historia de la literatura/literaria. (1 punto)

- a) Asocie el siglo de oro o el siglo XX con el periodo en el que vivieron la escritora o escritores mencionados.
b) indique el género literario que comparten los cuatro autores.

	Periodo literario	Género literario
Rafael Alberti		
Santa Teresa de Jesús		
Garcilaso de la Vega		
Miguel Hernández		



2. atala

EUSKARA ETA LITERATURA

IZEN-DEITURAK:

SINADURA:




JARRAIBIDEAK

1. Arretaz irakurri testua eta galderak.
2. Galdera guztiak erantzuten saiatu.
3. Idazmenaren atalean bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz; eta bestea, gaztelaniaz. Zeuk erabakiko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.
4. Emandako denbora baino lehen bukatuz gero, berriro irakurri idatzitakoa eta akatsak zuzendu.
5. Adi ortografiari: letra larriak, txikiak, puntuak, komak, etab.
6. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.

Frutaren bekatua

Arrazoi estetikoengatik soilik, fruta eta barazki mordoa galtzen da alferrik. Itxura perfektuko aleak bakarrik nahi eta 'zatarrak' baztertzen dituen kontsumitzailearen ohiturak daude arazoaren oinarrian.

ALFERRIK GALDUTAKO JANARIA



ITURRIA: FAO

Perfektuak ez izatea dute bekatua, eta saltoki handietako apaletan gelditzen dira, inork ez dituelako hartzen. Edo lehenago galdu dira, saltokira iritsi aurretik, merkaturatzeko neurri, kolore eta itxura egoki-egokirik izan ez, edo arauak betetzen ez dituztelako. Edo oraindik lehenago, baratzean edo arbolatik erorita, inork erosiko ez dituzenez, nekazariari ez diolako, merezi haiek biltzea. Eta galdu dira ez txarrak zeudelako, edo ustelduta, edo harrak jota. Zatarrak, itsusiak direlako galdu dira; arau zaharkituak ez dituztelako bete, neurtzeko makinak baztertu egin dituelako edota, batez ere, gaur egungo erosleek, bereziki saltoki handietan, fruitu eta barazki ale perfektuak soilik hartzen dituztelako apaletatik.

FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen datuek erakusten dute arduragabekeria zein neurrikoa den. Ia 800 milioi lagunek gosea nozitzen duten mundu honetan, gizakiarentzako ekoiztutako elikagaien herenak galdu egiten dira. Galtzen den guztiaren laurdena salbatuta, 870 milioi lagun gehiago elikatuko lirateke. (...)

Marian Bustamante elikadura eta bromatologiako EHUko irakaslearen iritziz «Garrantzitsua da argi gelditzea: elikadura ikuspuntutik ez dagoela desberdintasunik fruitu edo barazki zatar eta politen artean».(...)

Eroskiko saltoki ia guztietan azaro amaiera arte txoko berezi bat izango da fruitu eta barazki *zatarrei* eskainia. Erdi prezioan salduko dituzte, Martinez Berriotxoak, Eroskiren Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria, azaldu duenez, «Eskaintza honetako produktuak ez dira bigarren mailakoak, ez zimeldutakoak, ezta iraungitakoak ere; azkenean, estetikoki politagoak direnen zaintza, tratamendu, eta eguzki eta ur berbera jaso dituzte».

<http://berria.eus>



Irakurriaren ulermena (5 puntu)

Irakurri arretaz testua eta biribildu erantzun zuzena.

1. FAOren datuen arabera, ekoiztako fruta eta barazkien zer kopuru alferrik galtzen da mundu mailan? (0,35 puntu)

- A. %40-50
- B. %25
- C. %80
- D. %50

2. Non alferrik galtzen da fruta eta barazki kopururik handiena?(0,35 puntu)

- A. Estatu Batuetan
- B. Afrikan
- C. Europan
- D. Asian

3. Batez ere, zergatik geratzen da hainbeste fruta eta barazki kontsumitu gabe? (0,35 puntu)

- A. Arauek fruta itsusia saltzea debekatzen dutelako.
- B. Kalitate on-oneko fruta eta barazkiak kontsumitzen ditugulako.
- C. Kontsumitzaileek itxura perfektua duten aleak nahi dituztelako.
- D. Saltokietan itxura oneko fruta eta barazkiak soilik jartzen dituztelako.

4. Fruta eta barazkiak alferrik galtzen dira. Zergatik? Aukeratu testuak aipatzen EZ duen arrazoa. (0,35 puntu)

- A. Salneurria.
- B. Txikiegiak dira.
- C. Arbolatik eroritakoak dira.
- D. Kolorea edo forma desegokia dute.



5. Zer erakusten dute FAOren datuek? (0,35 puntu)

- A. Gero eta jende pobre gehiago dagoela munduan.
- B. Gero eta jende gehiago hiltzen dela gosez munduan.
- C. Frutak eta barazkiek munduko gosea leundu ahal dutela.
- D. Ardurarik gabe jokutzen dugula, hainbeste janari alferrik galtzen utzita.

6. Zergatik antolatu du Eroskik azaroko kanpaia? (0,35 puntu)

- A. Kontsumitzaileak kontzientziatzeko.
- B. Barazkiak jatea osasungarria dela ikusarazteko.
- C. Fruta eta barazki itsusiak hobeak direla ikusarazteko.
- D. Saldu gabe geratzen diren fruta eta barazkiak saltzeko.

7. Zertan datza kanpaina? (0,35 puntu)

- A. Fruta eta barazki guztiak merke salduko dituzte.
- B. Fruta eta barazki itsusiak merkeago salduko dituzte.
- C. Erdiko txoko batean jarriko dituzte fruta eta barazkiak.
- D. Erdi prezioan salduko dituzte fruta eta barazki guztiak.

8. Zein da testuaren ideia nagusia? (0,35 puntu)

- A. Fruta itsusiak itxura perfektua duten frutak bezain onak dira.
- B. Alferrik galtzen den janariak munduko gosea murrizten lagunduko luke.
- C. Fruta eta barazki asko alferrik galtzen dira itxura polita ez edukitzeagatik eta errudunak kontsumitzaileak gara.
- D. Eroskik kanpaina bat antolatu du kalitatezko frutak eta barazkiak ez daudela itxuraren menpe erakusteko.

9. Zein da testuaren helburua? (0,35 puntu)

- A. Publizitate kanpaina egitea jendeak fruta itsusia jan dezan.
- B. Informazioa ematea alferrik galtzen den fruta eta barazkiei buruz.
- C. Fruta eta barazkiak kontsumitzea onuragarria dela azpimarratzea.
- D. Munduko herrialde guztien kontsumo ohiturak zehatz deskribatzea.



10. Zer eratako testua da? (0.35 puntu)

- A. Azalpena.
- B. Narrazioa.
- C. Deskripzioa.
- D. Instrukzio testua.

11. Testuaren igorleak modu objektiboan ala subjektiboan idatzi du? Arrazoitu erantzuna. (0,8 puntu)

12. Azpiko koadroan hitzen sinonimoak eta definizioak dituzu. Lotu testuko hitz hauek definizioekin, adibidean bezala: *zatarrak*, *iraungitakoak*, *arduragabekeria*, *baratzea*, *nozitu*, *zimeldutakoak*, *aleak*, *harrak jota*. (0,7 puntu).

Testuko hitza	sinonimoa edo definizioa
<i>zatarrak</i>	<i>Itsusiak</i>
	Unitateak.
	Lur-zati ez handia, gehienetan hesitua, barazkiak eta fruta arbolak landatzeko erabilia.
	Zizareak zuloa(k) eginda.
	Kezka eta erantzukizun falta.
	Jasan, sufritu.
	Mardultasuna edo freskotasuna galdu eta lehortuta dauden frutak edo barazkiak.
	Kontsumitzea gomendatzen den aldia igarota dutenak.



3. atala/ 3º parte

IDAZMENA / EXPRESIÓN ESCRITA

EUSKARA ETA LITERATURA

LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

IDAZMENA (10 puntu)

EXPRESIÓN ESCRITA (10 puntos)

Atal honetan, bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz; eta, bestea, gaztelaniaz. Testuak gai berari buruzkoak dira; hala ere, desberdinak dira, bai luzeran (laburra eta luzea), bai testu-generoan (aholku zerrenda eta iritzi-testua). **Zuk aukeratuko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.**

Baina, **Kontuz!** Testuetako bat euskaraz idatzi behar duzu eta bestea, gaztelaniaz. Biak euskaraz edo biak gaztelaniaz idazten badituzu, baliogabetu egingo da idatzi ez duzun hizkuntzaren atala.

En este apartado de la prueba debe escribir dos textos, uno en euskera y otro en castellano. Los textos tienen que tratar sobre el mismo tema, pero son de diferente extensión (uno corto y otro largo) y de diferente género textual (uno es una lista de consejos y el otro es un artículo de opinión)

Debe elegir qué texto va a escribir en castellano y cuál en euskera. Pero, CUIDADO, es necesario escribir un texto en cada lengua. Si los dos están escritos en castellano o en euskera, solo se puntuará uno de ellos, quedando sin puntuación el apartado correspondiente a la otra lengua.



TESTU LABURRA (5 puntu)	TEXTO CORTO (5 puntos)
<p>Aholku-zerrenda idatziko duzu (90-100hitz)</p> <p>Egoera: Lotsagarria da ikustea zenbat janari botatzen dugun zakarrontzira. auzoan kanpaina bat jarri dute martxan: <i>Ez alferrik galdu janaririk. Kontsumo arduratsua nagusi!</i></p> <p>Zuk lagundu nahi duzu eta aholkuak idatziko dituzu. Aurreko testuetako ideiak erabili ahal dituzu.</p>	<p>Debe escribir un listado de consejos (90-100 palabras)</p> <p>Situación: Es lamentable ver cuánta comida tiramos a la basura. En el barrio han puesto en marcha la campaña: <i>Consume lo que necesitas</i></p> <p>Tú deseas colaborar, y por lo tanto vas a escribir un listado de consejos. Te puedes servir de las ideas expresadas en los textos de la prueba.</p>

TESTU LUZEA (5 puntu)	TEXTO LARGO (5 puntos)
<p>Iritzi-artikulua idatziko duzu (180-200 hitz)</p> <p>Egoera: Auzunean elikagaien bankua martxan dago eta parte hartzen duzu. Hala ere, tamalgarria da ikustea zenbat janari alferrik galtzen den. Zure auzunean blog bat duzue auzokideen kezka adierazteko. Zein da zure iritzia? Nola jokatzten dugu herrialde aberatsek? Zer egin daiteke?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sarreran, idatzi paragrafo batean gai horri buruz duzun iritzia. • Bi paragrafotan garatu iritzi hori defendatzeko argudioak. • Azken paragrafoan ondorioa(k) idatzi. 	<p>Debe escribir un artículo de opinión (180-200 palabras)</p> <p>Situación: En el barrio está en marcha el banco de alimentos y tú colaboras en él. A pesar de ello, es deplorable ver cuánta comida se pierde. En tu barrio tenéis un blog para canalizar las quejas de los vecinos y vecinas.</p> <p>¿Cuál es tu opinión? ¿Cómo actuamos los países ricos? ¿Qué se puede hacer?</p> <ul style="list-style-type: none"> • En la introducción escribe la opinión que tienes sobre ese tema. • En dos párrafos desarrolla los argumentos que defienden esa opinión. • En el último párrafo escribe las conclusiones.

<p>Ideia hauek gara ditzakezu :</p> <ul style="list-style-type: none"> • Janari pila alferrik galtzen da (non, nola...) • Munduan jende asko goseak jota • Herrialde aberatsek zer egiten dute? • Zer egin ahal dugu guk? • Adibideak aipatu. <p>(Irakurri dituzun testuetako informazioa ere erabili ahal duzu)</p>	<p>Entre otras, estas ideas pueden ayudar al desarrollo del texto:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Se pierde mucha comida (dónde, cómo...) • En el mundo hay mucha gente que se muere de hambre. • ¿Qué podemos hacer? • Cita ejemplos. <p>(Puedes utilizar también la información dl texto que has leído)</p>
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



Eta kontuan hartu aholku hauek:/ Tened en cuenta estos consejos:

- Boligrafoz idatzi
- Saiatu garbi idazten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua idatzi behar duzula.
- Zirriborroa egin ideiak hobeto antolatzeko.
- Zirriborroa azterketarekin batera eman.
- Idazlana bukatzen duzunean, errebisatu entregatu baino lehen.
- Zure idazlana zuzentzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - Ea eskatutakoa bete duzun
 - Ea testu egokia eta koherentea idatzi duzun
 - Ea testu zuzena idatzi eta lexiko eta egitura egokiak eta aberatsak erabili dituzun.

- Utilizar bolígrafo para escribir.
- Intentar hacer una letra clara.
- Recordar que es necesario llegar a la cantidad de palabras solicitadas.
- Es conveniente hacer un borrador para organizar las ideas.
- Entregar el borrador con el examen.
- Antes de entregar la prueba, revisar lo escrito.
- Para corregir el escrito se tendrán en cuenta estos criterios:
 - contestar a lo solicitado.
 - escribir un texto adecuado.
 - utilizar una lengua correcta, coherente y rica.



IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

TESTU LABURRA (5 puntu) / TEXTO CORTO (5 puntos)

Aholkuak/ Consejos (90-100 hitz/palabras)

.....

.....

.....

.....

5.....

.....

.....

.....

.....

10.....

.....

.....

.....

.....

15.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

TESTU LUZEA (5 puntu)/ TEXTO LARGO (5 puntos)

Iritzi-artikulua /Artículo de opinión (180-200 hitz/palabras)

.....

.....

.....

.....

5.....

.....

.....

.....

.....

10.....

.....

.....

.....

.....

15.....

.....

.....

.....

.....

20.....

.....

.....

.....
.....

25.....
.....
.....
.....
.....

30.....
.....
.....
.....
.....